

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Koalak badaki

ANIMALIA GOSETIEN hortzetatik babesteko, arantzaz gain, azpijan eta azpilan ugari egin dute landareek. Begientzat agerikoak diren elorri zorrotzak baino leunagoak, finagoak diren mugak eratu dituen landare asko da.

Pozoiak, adibidez. Hortzak ez dira jabetuko, baina barrunbean ederki igarriko dio animaliak pozoia duen hostoari heltzen badio. Pozoi batzuk triapak nahasi eta goragalea edo beherakoarekin pasako dira, baina badira lurpera eramango gaituztenak ere. Horra kulturaren garrantzia, lur batean ikasitakoa belanez belaun doana. Honela, hagi-

na (*Taxus baccata*), kuku-praka (*Digitalis purpurea*), irabelar otseria edo pozoiduna (*Aconitum napellus*), heriotzorria (*Nerium oleander*), belaikia (*Atropa belladonna*), piko-zoro edo asma-belarra (*Datura stramonium*), erabelar edo txerri-baba (*Hyoscyamus albus*), akain-belarra (*Ricinus communis*), tabakoa (*Nicotiana tabacum*), asta-mahats ale gorria edo indargoia (*Bryonia dioica*), otsababa arra edo lupu-belarra (*Helleborus foetidus*), astaperrexil handia edo otzerri-belarra (*Conium macu-*

latum), uretako astaperrexila (*Cicuta virosa*), azpelarra (*Colchicum autumnale*), ereinozttoa (*Daphne mezereum*) eta adar luze bat baita hilkor ere izan dakigukeela

badakigu. Hostoak, azala, fruituak, sustraiak, bakoitzak berea pozoitzen du, eta guk, berdejaleok, jakin egin behar...

Koalak badaki. Koalak eukalipto-hostoa besterik ez du jaten. Eta eukalipto, eukaliptoak pozoitsuak dira. Koala bizi den Australian 600en bat eukalipto espezie izango da; horietatik 30 inguru jaten du martsupial honek. Hosto usaintsu horiek toxina desatseginak dituzte, baina koalaren gor-

putza horietara egina da. Urtebete baino gazteago ko historik ez dute nahi izaten, jaki pattala baita. Urtea eta urte eta erdi artekoak jaten dituzte, zaharagoek pozoi hilkorra garatzen dute (azido prusiakoa, zianuroa). Besterik jaten ez eta jakin behar... Koalaren kultura. Amak kumeari bere kakak ematen dizkio jaki. Hesteak bizitza guztian landu behar ko dutenera ume-umetatik jar daitezten. Dakien triapak badaki.



WWW.MINIFAUNA.COM

%95

Munduko laugarren uharte handiena, Madagaskar, hamazazpi estatu mega-anitzetako bat da.



Madagaskar, satelitetik egindako irudian.

Bere lurretan aparteko espezie aniztasuna bizi da. Munduko espezie guztien hogeitik bat bertan badela diote, eta horien hamarretik zortzi endemikoa da, hau da Madagaskarren besterik ez da bizi.

Bada, gizakia duela 1.500 urte iritsi zen paradisu honetara eta tarte honetan bertako basoen %95a suntsitu dugu.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.